

2025ko AMURRIOKO NAZIOARTEKO VII. KROSA ARAUDIA

1.- **DATA ETA LEKUA**: Amurrioko Nazioarteko VII. Krosa Refor kirol gunearen zirkuituan lehiatuko da (Amurrio), 2025ko abenduaren 28an.

2. **LASTERKETAREN KATEGORIA**: Aurtengo krosa hurrengo egutegien barruan sartuta dago:

- World Athletics Country Tour Silver – Zilar kategoria (WA).
- European Athletics Cross Country Circuit (EAA).
- Espainiako Atletismo Federazioa (RFEA).
- Euskadiko Atletismo Federazioa (EAF-FVA).
- Arabako Atletismo Federazioa (FAA).
- Kirol Egokituen Euskal Federazioa (KEEF).

Era berean, III Euskadiko Kros Ligarako puntuagarria izango da (10. Froga puntuagarria).

3. **LASTERKETA MOTAK**: Hurrengo lasterketak ospatuko dira:

FEDERATUAK Federatuentzako lasterketak

- Sub16
- Sub18
- Sub20
- Sub23
- Absolutua
- Master

Sub16, Sub18, Sub20, Sub23, Absolutua eta Master mailetan Espainiako Federazioko lizentzia nazionala duen edozein atletak parte hartu ahal izango du. Euskadiko Federazioko lizentzia autonomikoa duen Euskadiko edozein atletak ere parte hartu ahal izango du. Espainiako beste autonomia batean lizentzia autonomikoa daukaten atletek, eguneko lizentzia egiteko aukera izango dute 3€ ordainduta. Dena dela, maila hauetan bi sailkapen egingo direla adierazten da. Sailkapen ofizialean bakarrik agertuko dira Espainiako Federazioaren lizentzia nazionala dutenak. Beste sailkapen bat egingo da parte hartu duten atleta guztiekin eta sailkapen hau erabiliko da sari banaketa egiteko.

ESKOLA KIROLA

Eskola kiroleko lasterketak (izen ematea kirolari guztientzako irekita egongo da, Arabako Eskola Kirolean atletismoan daudenentzako, eta ez daudenentzako baita ere). Adingabeek legezko tutorearen baimenarekin parte hartzen dute, inskripzioa egitean onartuta. Hauek dira kategoriak.

- Sub14 (2013-2012)
- Sub12 (2015-2014)
- Sub10 (2017-2016).
- Jolas Festa (2018 – 2025).

LASTERKETA HERRIKOIA:

Lasterketa Herrikoia (+14 urte), kirolari guztientzako irekita 14 urteetatik aurrera (2011tik aurrera jaiotakoentzako). Adingabeek legezko tutorearen baimenarekin parte hartzen dute, inskripzioa egitean onartuta.

KROSS EGOKITUA:

Bi lasterketa ezberdin ospatuko dira, kros laburra eta kros luzea, bai emakumeentzat bai gizonezkoentzak.

4.- IZEN EMATEA: Krosean parte hartzeko derrigorrezkoa da aldeztu izena ematea.

- **FEDERATUAK**: Federatuentzako izen-emateak RFEAko CALL ROOMen bidez egingo dira **2025eko abenduaren 25era arte, 23:59ak baino lehen**.

Espainiako beste autonomia batean lizentzia autonomikoa daukaten atletak, eguneko lizentzia egiteko aukera izango dute 3€ ordainduta. Izen-ematea eta ordainketa www.kirolprobak.com webgunearen bidez egin beharko dira.

- **ESKOLA KIROLA**: Eskola-atleta guztiek, Arabako Foru Aldundiko Eskola Kirolean alta eman dutenek zein ez dutenek, www.kirolprobak.com webgunean eman beharko dute izena **2025eko abenduaren 25a baino lehen, 23:59an**. Izena emateko aukera egongo da probaren egunean, proba bakoitza hasi baino 30 minutu lehenago arte. **Izen-ematea doakoa izango da.**
- **LASTERKETA HERRIKOIA**: korrikalariek www.kirolprobak.com webgunean egingo dute izen ematea. Epea, era berean, **2025eko abenduaren 25a baino lehen, 23:59an**. **Lasterketa herrikoia 5€ prezioa izango du (adin txikikoak izan ezik, hauentzat doakoa izango da)**. Egunean bertan izena ezin izango da izena eman.

- **KROS EGOKITUA:** Email bat bidaliz amurrioko.krosa@gmail.com helbidera. Epea, **2025eko abenduaren 25a baino lehen, 23:59an.**

Edozein zalantza izanez gero, bidali email bat helbide honetara: amurrioko.krosa@gmail.com

5. SARIAK: Maila guztietan txapela egongo da irabazlearentzako eta garaikurra lehengo 3 sailkatuentzako (eskola kiroleko mailetan izan ezik). Gainera, senior mailan, bai emakumezkoen lasterketan bai gizonezkoen lasterketan, sari ekonomikoak egongo dira:

Lehenengo Euskalduna Absolutu lasterketetan (Euskadiko edo Espainiako lizentzia edozein Euskadiko probintziakoa)	150€
--	-------------

6.- DORTSALA: Antolatzaileek emandako dortsala erabiliko da lasterketa guztietan (federatuak, herrikoiak, eskolakoak eta egokituak). Dorsalak zirkuituko idazkaritzan emango dira (gimnasioan). Kategoria federatua, klubeko gutun-azaletan emango da, eta klub bakoitzeko ordezkari batek jasoko du. Nahitaezkoa izango da dei-ganberatik igarotzea egiaztagiriarekin batera ezarritako ordutegietan (NAN edo ordezkoa), lasterketa federatuetan bakarrik.

7.- ERANTZUNKIZUNA: Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango, proba burutzen den bitartean edo probatik kanpo, ezbeharren bat gertatzen baldin bada.

8.- ARAUDIAREN ONARPENA: Proba honetan parte hartzeko, araudi honetan ezarritakoa onartu beharko da.

9.- IRUDIAREN ERABILERAREN ONARPENA: Proban parte hartzean, norberaren irudiaren erabileraren onarpena suposatzen du, antolakuntzaren partetik egingo diren argazki eta bideoentzako.

10.- BESTELAKOAK: Araudi honetan jasotzen ez diren gauza guztietarako kontuan izan beharko da World Athletics-en araudian ezarritakoa.

ORDUTEGIA

MAILA	DEI GANBERA	IRTEERA	DISTANTZIA	BIRA KOPURU
SUB-16 GIZONEZKOA	9:45	10:00	4.000m	2A+B
SUB-18 GIZONEZKOA			4.000m	2A+B
SUB-20 GIZONEZKOA			6.000m	3A+B
SUB-16 EMAKUMEZKOA	10:15	10:30	4.000m	2A+B
SUB-18 EMAKUMEZKOA			4.000m	2A+B
SUB-20 EMAKUMEZKOA			6.000m	3A+B
SUB-14 GIZONEZKOA	-	11:05	2.000m	2A
SUB-14 EMAKUMEZKOA	-	11:25	2.000m	2A
SUB-12 GIZONEZKOA	-	11:45	1.000m	1A
SUB-12 EMAKUMEZKOA	-	11:55	1.000m	1A
SUB-10 MISTO	-	12:05	1.000m	1A
JOLAS FESTA (2018-2019-2020-2021-2022-2023-2024-2025)	-	12:15	200m	Irteera – Helmuga Salida - Meta
ABSOLUTUA / SUB-23 EMAKUMEZKOA	12:10	12:25	9.000m	1A + 4A+B
ABSOLUTUA / SUB-23 GIZONEZKOA	13:00	13:15	9.000m	1A + 4A+B
LUZEA EGOKITUA EMAKUMEZKOA	-	13:55	2.000m	2A
LABURRA EGOKITUA EMAKUMEZKOA			1.000m	1A
LABURRA EGOKITUA GIZONEZKOA			1.000m	1A
MÁSTER EMAKUMEZKOA	14:00	14:15	5.000m	1A + 2A+B
MÁSTER GIZONEZKOA				
KROS HERRIKOIA				
LUZEA EGOKITUA GIZONEZKOA			3.000m	1A + 1A+B

ZIRKUITUA:

